

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

KULTURA, HEZKUNTZA ETA KIROL SAILA

Hezkuntza Zerbitzua

17. ildoaren diru-laguntzak ematea - 2018-2019 ikasturtean Vitoria-Gasteizen hezkuntza-premia bereziak dituzten pertsonentzako hezkuntza-jarduketak garatzera zuzentzen diren elkarteetarako diru-laguntzak

Tokiko Gobernu-Batzarrak 2018ko abenduaren 14an egindako ohiko bileran, onetsi egin dira 17. ildoaren diru-laguntzak ematea - 2018-2019 ikasturtean Vitoria-Gasteizen hezkuntza-premia bereziak dituzten pertsonentzako hezkuntza jarduerak garatzera zuzentzen diren elkarteetarako diru-laguntzak.

Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 40. artikuluan eta 45. artikuluko b) puntuan ezarritakoa betez, honako hau argitaratu da, informazioa emateko xedez:

17. ildoaren diru-laguntzak ematea - 2018-2019 ikasturtean Vitoria-Gasteizen hezkuntza-premia bereziak dituzten pertsonentzako hezkuntza jarduerak garatzera zuzentzen diren elkarteetarako diru-laguntzak.

2018ko urriaren 24an argitaratu ziren ALHAOn, 2018-2019 ikasturtean Vitoria-Gasteizen hezkuntza-premia bereziak dituzten pertsonentzako hezkuntza jarduerak garatzera zuzentzen diren elkarteetarako diru-laguntzen (17. ildo) deialdi publikoa eta oinarri espezifikoak, 2018ko urriaren 5ean Tokiko Gobernu-Batzarrak egindako ohiko bilkuran onartutakoak. Deialdiaren laburpena 2018ko urriaren 24an argitaratu zen ALHAOn, eta data horretatik aurrera hasi zen zenbatzen eskariak egiteko epea.

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta Vitoria-Gasteizko Udaleko diru-laguntzak eta bestelako laguntzak arautzen dituen udal ordenantzak ezarritakoa betez eta 2018. urterako Vitoria-Gasteizko Udaleko diru-laguntzak arautzen dituzten oinarrietan (Tokiko Gobernu-Batzarrak 2017ko abenduaren 1ean onartua) jasotakoarekin bat etorrira, balorazio-organoa elkartu da, eta, aipatutako deialdi horretan egin diren eskariak kontuan hartuta, diru-laguntzak emateko eta ukatzeko proposamena egin du.

Indarrean dagoen gastuen aurrekontuan, Kultura, Hezkuntza eta Kirol Sailaren 2018ko udal aurrekontu luzatuko 2319 03 3261 48175 kontu-sailean, zehazki, nahikoa diru-izendapen badagoela kontuan hartuta, Tokiko Gobernu-Batzarrak 2016ko maiatzaren 24an eskumenak eskuordetzeari buruz hartutako erabakiaren bertutez, Kultura, Hezkuntza eta Kirol Saileko zinegotzi ordezkariak honako proposamen hau egin du, Tokiko Gobernu-Batzarrak azter dezan,

Akordioaren proposamena

Lehena. I. eranskinean zerrendatutako laguntzak onestea eta bertan aipatzen diren elkartei ematea 2018-2019 ikasturterako, 19.232,53 euroan guztira. Kultura, Hezkuntza eta Kirol Saileko 2319 03 3261 48175 partidaren kontura. Diru-laguntza bi ordainketetan gauzatuko da: lehenengo, 2018ko udal partidaren kontura eta bigarrena, 2019ko udal partidaren kontura, betiere, aurrekontu horretan ordainketa gauzatzeko kreditu nahikoa eta egokia dagoenean.

Ebazpen honen kontra, administrazio bidea agortzen baitu, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahalko da zuzenean Euskal Herriko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, jakinarazte egunaren biharamunetik kontatuta, edo, aukeran, berraztertze errekurtsoa, erabakia hartu duen organo berari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazte egunaren biharamunetik kontatuta; horren berariazko nahiz ustezko ebazpenaren kontra, berriz, bi hilabeteko epean aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Euskal Herriko Auzitegi Nagusian, errekurtsoa ezesten duen ebazpenaren berri jasotzen den egunaren biharamunetik kontatuta, edo, ebazpena ustezkoa bada, sei hilabeteko epean, ustezko ebazpen hori gertatzen den egunaren biharamunetik kontatuta.

Vitoria-Gasteizen, 2018ko abenduaren 21ean

Kultura, Hezkuntza eta Kirol Saileko Zinegotzi Ordezkaria
ESTÍBALIZ CANTO LLORENTE

I. eranskina: elkarte onuradunak eta emandako diru-laguntza

Elkarteak	2018-2019 ikasturterako emandako diru-laguntza	2018an egin beharreko lehenengo ordainketaren zenbatekoa	2019an egin beharreko bigarren ordainketaren zenbatekoa
ASPASOR	2.236,27	894,51	1.341,76
DOWN ARABA	2.663,45	1.065,38	1.598,07
FEDER	2.582,85	1.033,14	1.549,71
TALUR	2.050,89	820,36	1.230,53
AEMAR	1.615,65	646,26	969,39
ASPACE	3.791,85	1.516,74	2.275,11
ALCAVI	4.291,57	1.716,63	2.574,94
Guztira	19.232,53 euro	7.693,02 euro	11.539,51 euro